

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

1217

EBAZPENA, 2026ko martxoaren 9koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Vitoria-Gasteizko Alava Jenerala eta Independentzia kaleak urbanizatzeko eraikuntza-proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2026ko otsailaren 2ko Ebazpenaren bidez, «Vitoria-Gasteizko Alava Jenerala eta Independentzia kaleak urbanizatzeko eraikuntza-proiektua» onetsi zen. Ebazpena 2026ko otsailaren 18an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (33. zk.) eta Arabako Lurralde Historikoa-ren Aldizkari Ofizialean (21.zk.).

Proiektuaren helburua da Alava Jeneralaren eta Independentzia kaleen urbanizazioa zehaztea, zirkulazioa eta garajeetarako irispidea mantenduz, tranbia-sistemaren iragazkortasuna eta integrazioa hobetzeko Independentzia eta La Paz kaleen arteko bidegurutzearen eta tranbiaren Legebiltzarreko geltokiaren artean dagoen hiri-ingurunean. Zoladurarako irtenbide homogeen bat bilatuko da, dauden akaberak bateratuz (hormigoi bituminosoa, asfalto urtua eta hormigoi inprimatua), dauden hiri-elementuak urbanizazio berrira egokituz eta dagoen drainadura birgaituz. Era berean, Independentzia kalea, Alava Jeneralaren kalea eta Foruen kaleen elkargunean bi bideen zati bat berrituko da, bi bideen erreiak nahiko higituta daudela ikusi baita.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuan ondasun eta eskubide horien identifikazio xehakatur jaso da. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatieen zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espedituentz izapidetzeko, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 11.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen, horien zatien edo tren-azpiegituraren beste elementu batzuen proiektuak onartzeko edo lehendik zeudenak aldatzeko proiektuak onartzeko, lursail berriak erabili beharra badago, onura publikoko edo gizarte-intereseko deklaratu beharko dira, okupatu egin beharko dira eta okupazio hori premiazkotzat deklaratu beharko da, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra inplizituki proiektuaren onespenean jasotzen dela ulertzen bada ere, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, alegazioak egin eta datuak aurkeztu ahal izateko, proiektuak izan ditzakeen akatsak zuzendu eta interesdunak zein diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehengoa.– Aurrekarietan aipatzen diren «Vitoria-Gasteizko Alava Jenerala eta Independentzia kaleak urbanizatzeko eraikuntza-proiektuaren» obrak exekutatzeko nahitaezko desjabetzearen

espedientea hastea, ebazpen honen I. eranskinean zehazten diren ukitutako ondasun eta eskubi-deak identifikatuta.

Bigarrena.— Jendaurrean jartzea «Vitoria-Gasteizko Alava Jenerala eta Independentzia kaleak urbanizatzeko eraikuntza-proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, hamabost (15) egun balioduneko epean ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen, proiektuak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara zuzendu beharko dira (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Vitoria-Gasteizko udaletxeko iragarki-oholean ere jarriko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 9a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

ANEXO

VITORIA-GASTEIZKO UDAL-MUGARRIA

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Izaera
			Erabateko jabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
001		Vitoria-Gasteizko Udala			2.122	Bideak eta espaloia
002		Vitoria-Gasteizko Udala			1.705	Bideak eta espaloia
003	60-869	Vitoria-Gasteizko Udala			16	Bideak eta espaloia